

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 5a / 604. zenbakia



**GABERO
ABESBATZA**
Bikain Holandan

SAN JOXEPE: ERRETIRATUEN LANA SARITUKO DUTE/6 • ELKARRIZKETA: JOSE LUIS FEO ARGAZKILARIA/6

JATORRIZKO ARGAZKIA: GABERO

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 5**
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 6**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 7**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 8**
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 9**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 10**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 11**
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Santa Marina
Zapatuak:
19:00.
Domekak:
13:00. | Antzuola
Domekak:
10:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domekak: 10:00.
Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | |
| Elosu
Domekak: 11:00. | |
| Ubera
Domekak: 10:30. | |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean.

OHARRAK

1930EAN JAIOTAKOAK
1930ean jaiotakoen bazkaria azaroaren 13an, Zumelagan. Aurretik Espoioan elkartuko dira, 14:00etan. Izenematea 943 76 22 22 edo 943 76 15 88 telefonoetan.

1938AN JAIOTAKOAK
1938an jaiotakoen bazkaria azaroaren 13an, Pertxan. Izenematea: 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) edo 943 76 18 64 (Miguel Lazkano).

1953AN JAIOTAKOEN AFARIA
1953an jaiotakoen afaria azaroaren 13an, Txarrantxa jatetxean. Aurretik taldearen argazkia aterako dute Frontoian, 21:15ean. Izenematea (15 euro aurrez) Txarrantxan, Kiñun edo ONCERen kioskoan (Tasio).

1943AN JAIOTAKOEN AFARIA
1943an jaiotakoen afaria azaroaren 13an, Azpeitxi jatetxean. Izenematea 943 76 22 90 (Maher), 943 76 16 13 (Zubieta denda) edo 943 76 53 22 (Tejidos Fernandez) telefonoetan.

1933KOEN BAZKARIA
1933an jaiotakoen bazkaria azaroaren 14an, Zumelagan. Aurretik hildakoen aldeko meza izango da Santa Marinan, 13:00etan. Izenematea (6 euro) Intxorta tabernan.

1947AN JAIOTAKOEN AFARIA
1947an jaiotakoen afaria azaroaren 20an, Tartufo jatetxean, 21:00etan. Izenematea Euskadiko Kutxan.

1946AN JAIOTAKOEN AFARIA
1946an jaiotakoen afaria azaroaren 27an, Tartufo jatetxean. Izenematea bertan: 943 76 35 51.

1944AN JAIOTAKOEN AFARIA
1944an jaiotakoen afaria azaroaren 27an, Azpeitxi jatetxean. Izenematea: 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano) edo 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia).

URBANOENORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gaine-ara, Zubiarene, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiarene, Martoko, San Antonio, Espoioa (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERGARAN

Iban Rodriguez, Espainiako txapeldun

Iban Rodriguez auto gidariak Espainiako Clio Txapelketa eskuratu zuen 1994ko azaroan. Aurretik, 1992an, *Copa Clio Iniciacion* irabazi zuen gidari bergararrak. 1994an denboraldi borobila egin zuen Rodriguezek, eta Jaraman jokaturako azken probara bergarar zale dezente joan zen, Rodriguezen garaipena ospatzera.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Iguindu"



Nazkatu.
— Iguinduta nago tabernaik taberna ibiltzen.

JON IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

'EL FUEGO DE LA VENGANZA'

ZUZENDARIA: TONY SCOTT. **AKTOREAK:** DENZEL WASHINGTON.

HARIA. Enpresaburu baten alabaren bizkartzain izatea onartuko du CIAko agente ohi batek. Neska bahitzen dutenean, hura bilatzeko ahaleginak egingo ditu.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

'EL ESPANTATIBURONES'

ZUZENDARIAK: ERIC BERGERON, VICKY JENSON, ROB LETTERMAN.

HARIA. Oscar arraina da itsasoan girotutako marrazki bizidun hauetako protagonista. Tiburoi batek erasoko dio eta, kasualitatez, arrainak irabazi egingo dio. Horrela, itsasoko heroia bihurtuko da Oscar eta harro-harro agertuko da lagunaren aurrean...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

HAUGIROA!

MINIMOA 7°C
Eguaztena, 27

MAXIMOA 20°C
Zapatua, 30

ASTEKO EURIA (l/m²) 62,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 27	16 °C	7 °C	0,6 l/m ²
Eguena, 28	18 °C	8 °C	0,2 l/m ²
Egubakoitza, 29	17 °C	8 °C	- l/m ²
Zapatua, 30	20 °C	8 °C	- l/m ²
Domeka, 31	16 °C	8 °C	45,7 l/m ²
Astelehena, 1	12 °C	9 °C	15,7 l/m ²
Martitena, 2	17 °C	9 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.


Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ATREBENTZIAEZPADA/ AEBetako hauteskundearen jarraipenik egin duzu?



FERNANDO MORETON
32 urte



JAVI PINEDA
34 urte



LAURA SANCHEZ
24 urte



PEDRO MURILLO
39 urte



ARANTZAZU ARANTZABAL
40 urte



ANA BARQUERO
29 urte

Pixka bat bai. Toki guztietan eman dute honen berri eta jarraitzea beste aukerarik ez digute utzi. Emaitzek ez digute asko eragingo. Bushek jarraituz gero, lehen-goetan egongo gara.

Askorik ez, ez baitut apenas telebistatik ikusten, eta interesik ere ez dut ipini. Hala ere, AEBetan hartzen dituzten erabakiek mundu guztian dute eragina, munduko potentzia bat baita.


Pixkatxo bat bai, irratian eta telebistan entzun ditudan gauzekin. Bushek irabazita berdin jarraituko du denak. Nire ustez hobea litzateke Kerryk irabaztea, aldaketa ekarriko luke eta.

Bai, pixka bat, mundua dagoen eran denongan dute eragina hauteskundeek. Bushek irabazita gauzek okerrera egingo dute, gerra eta petrolioaren prezioaren igoera izango ditugu.

Askorik ez, telebistan esaten dutena baino ez. Hala ere, ez zait askorik interesatzen. Izan ere, hautagai bat zein bestea berdinak direla uste dut, eta gauzek berdin jarraituko dute.

Ez, egia esan behar badut ez dut inolako jarraipenik egin, ez zaizkit interesatzen ere. Kerryk irabaziko balitu aldaketa egotea posible da, baina Bushekin berdin jarraituko dute gauzek.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK MIGEL ALTUNA IKASTETXEA Irakurle batek deitu digu esanez, Migel Altuna ikastetxea handitzeko egiten ari diren eraikina oso itsusia dela. "Horrelako eraikin bat herri erdian ikustea ez zait batere egokia iruditzen. Horma handi horiek bizilagunei ere traba egingo diete. Etxebizitzaren fatxadetan aldaketak egiteko hainbeste arau jartzen badituzte, nola utzi diete horrelako gauza bat eraikitzen?". //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO / 5

Monzon jaio zela 100 urte

Telesforo Monzonen gaineko hitzaldiak eta mahai-inguruak, bere jaiotzaren 100. urteurrenean.

KULTURA / 6

3-Dko argazkilaritza

Jose Luis Feok 3D-ko argazkilaritza lantzen dihardu azken urteotan. Teknika hori azaldu digu.

KIROLA / 7

Bergara-Hondarribia

Preferente mailako futbol taldeak Hondarribia izango du bisitari zapatuan, Agorrosinen.

ASTEKODATUA

45

LITRO EURI JASO ZIREN DOMEKAN

Eguraldi aldakorra dugu azken egunotan. Domekan, esaterako euri dezente egin zuen. Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera, 45,7 litro jaso ziren egun horretan Bergaran.

BESTEKEKESANA

“XIX. mende bukaerara arte itxaron behar izan zen tren Bergaran ikusteko. Bi ibilbide dira aipagarriak: Durango eta Zumarraga artekoa eta Lizarratik Gasteizera eta Durangora zihoan; biek zuten geltokia Bergaran orain dela hamarkada gutxira arte. Orduan, itxi egin behar izan zuten garraiobide berrien kompetentzia zela eta”.

CARLOS LARRINAGA / Historialaria 'El Diario Vasco' / 04-11-02

“Kultura hamabostaldia amaitzeko, oso ondo bazkaldu dugu. Aurten, ordea, faltan izan dugu Tomasita.

Lan handia egin zuen San Joxepe elkartearen alde eta, orain guk aren urratsak jarraitu nahi ditugu
JUAN CRUZ AZKARATE / San Joxepe elkartearen presidenteordea 'Asteleheneko Goienkaria' / 04-11-02

BERAIEKIDINE / Maite Aristegi



Munduko enperadore berria

Lerrook irakurri orduko jakingo dugu zein den munduko enperadore berria. Bata zein bestea izan, ez dirudi kapitalismo bortitza eta iruzurtiaren hatz-parren eragina ahultzeko ahaleginik ikusiko dugunik; Marx-ek iragarri zuen bezala, gero eta miseria gehiago munduan, gero eta diru gehiago gutxiagoren esku. Gauza guztiak, baina bizitza ere, merkantzia bihurtu direnean, behar ez ditugun gauzen publikitateak zorabiatuz, kontsumoaren kontsumoz zoriontsu garelako sinestaz diguten honetan, nori axola munduan 840 milioi jatekorik gabe badago, egunean 24 mila ume gosez edo gaixotasunez hilten badira, edo mundua deserta bihurtzen ari bagara? Hori ez baita propagandarako gaia. Batzuen aberastasun pilaketak jarraitzekotan, gorpil eroak segi behar, gure beharrek zerikusirik ez duten ereduak inposatuz. Asteon, Arrasaten, *Kontsumoa, mugikortasun arazoak eta herrita-*

rron erabakitzeko gaitasunaz informazioa jaso eta eztabaidarako aukera izan dugu. Planetaren hondoratzeaz, gure inguruen etorkizunaz kezkatuta gaudenontzat lehen mailako gaiak.

Herri bat Abiadura Handiko Trenik gabe "moderno" ez dela

“Gero eta miseria gehiago munduan, gero eta diru gehiago gutxiagoren esku”

aitezkiat hartuz, informazio gaizto, publicitate gezurti eta demokraziaren prostituitzearen laguntzaz, agintariak izugarriko zentzugabekeriarako pausoak ematen ari dira. Oraindik ez dut ganorazko arrazoirik entzun munstro

horren beharra ulertzeko. Nora goazen jakin barik, baina etengabeko mugimenduan, galduta munduan, hala ere, gehiago mugitu behar! Batez ere, kapitala (batzuen poltsikotara). Hori bai, aurrean eramandako guztia (lur, etxe, paisaia...) denok ordaindu behar. Zentzugabetasun hori geldieraztea denon ardura delako, larunbatean Donostiako manifan ikusiko zaitudan itxaropenarekin gelditzen naiz.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elepuru
Miguel Angel
Elkoroberebizbar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GIZARTEA/ San Joxepekoek eguaztenean, hilaren 10ean jasoko dute saria, osoko bilkuren aretoan egingo den ekitaldian

Elkartea berritzeko egindako lanagatik Salgado Alba saria jasoko du San Joxepe

EDU MENDIBIL

Elkartea berritzeko hartutako konpromisoa eta azken urteotan egindako lana aitortuko diote San Joxepe elkarteari datorren eguaztenean, azaroak 10. Udaletxeko osoko bilkuren aretoa egingo dute ekitaldia, 19:30ean.

Besteak beste, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Ramon Alzate EHUko Psikologia Fakultateko prozesuen saileko zuzendaria, Izarne Lizaso prozesuen saileko irakaslea eta Juan Iturralde San Joxepe elkartearen zuzendaria izango dira eguazteneko ekitaldian. Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkar-tearen Salgado Alba saria jasoko du San Joxepe elkarteak. Hain zuzen ere, giza zientzien alorrean egindako lanagatik saritu dituzte herriko erretiratuak.

EHU-REKIN LANKIDETZAN

EHUko Psikologia Fakultatearen laguntzaz landu zuen San Joxepe bere proiektua. Azken urteotako ildoari jarraituz, erretiratuak ahalegin berezia egin dute bazkideen parte-hartzea handitu, belaunaldien arteko komunikazioa bultzatu eta herrian presenteko egoteko ekintzak bultzatzeko.



San Joxepeko erretiratuak belaunaldien arteko komunikazioa sendotzeko lan handia egin dute azken urteotan.

Izarne Lizaso EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea San Joxepe elkartearen funtzionamenduaren berri eman zuen ekai-

nean Las Palmasen, Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen 66. Kongresuan. San Joxepeko eta EHUko Psikologia Fakultate-

ak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten 2003ko ekainean.

Bestalde, amaitu berri den kultur hamabostaldian kolabo-

ratu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete erretiratuak. Era berean, antolatutako ekitaldien balorazio positiboa egin dute.

Gazteen artean drogen kontsumoa aztergai datorren astetik aurrera

E.M.

Udaleko Ongizate Saileko prebentzio zerbitzuak antolatuta, *Gaur egungo Euskal Autonomi Erkidegoko gazteak eta droga kontsumoak* izenburuko jardunaldiak izango dira datorren astetik aurrera. Bereziki, 12-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta daude antolatutako diren lau hitzaldiak.

LAU HITZALDI

Hitzaldi guztiak kultura etxean izango dira, 18:30ean. Lehenbiziko martitzenean, hilaren 9an, Nieves Corcuera Eusko Jaurlaritzako droga gaietarako zuzendaritzako teknikariak emango du. Corcuera *Droga kontsumoaren azken datuak eta diagnostika* izenburuko hitzaldia egingo du.

Eguenean, berriz, Ilazki Albizuri psikologoa izango da hizlari. Kontsumoa arazo noiz bihurtzen den jakiteko gurasoendako irizpideak azalduko ditu Albizurik.

Hurrengo bi hitzaldiak azaroaren 16an eta 18an izango dira:



Gazteak eta droga kontsumoa aztertuko dituzte hitzaldietan.

hilaren 16an *Drogen prebentzioa ikuspegi ebolutibotik* izenburuko hitzaldia egongo da. Hizlaria zehazteke dago oraindik.

Azkenik, azaroaren 18an, Txabi Ruiz Ai Laket!-eko kideak *Dro-*

gen kontsumoa ematen denean arriskuak eta kalteak gutxitzea hitzaldia egingo du. Antolatzaileen arabera, jardunaldion helburuetako bat gurasoei drogen ezagutza helaraztea da.

LABUR

Agifes elkarteak bilera informatiboa egingo du eguaztenean, Errotalde jauregian

Debagoieneko Agifes elkarteak dei egiten du eguaztenean, azaroaren 10ean, 18:30ean, Errotalde jauregian egingo den bilera informatiboan parte hartzeko. Bestalde, Agifesez aditzera eman duenez, gaixo psikikoen familiarrei zuzendutako taldeak hamabostean behingo martitzenetan elkartuko dira. Era berean, hileroko azken eguaztenean, arratsaldean, familiarrei zuzendutako zerbitzua egingo da Irizar jauregian. Argibideak 943 76 98 56 telefonoan.

Taila eskolak izango dira eguaztenero Zabalotegiko lokalean, maiatzera arte

Bergarako taila eskolakoek hasi dute ikasturte berria. Hemendik maiatzera bitartean eskolak izango dira eguaztenero Zabalotegiko lokalean, 18:00etatik 20:00etara.

Aurreko urteotan bezala Ascensio Esnaola izango da irakaslea eta taila ikasteko interesa duten guztiek har dezakete parte. Bereziki herriko gazteei dei egiten diete taila egileek. Interesa dutenek Zabalotegira jo dezakete, aipatutako egunean eta orduan.

Herriko giroa suspertzeko bilera egingo dute datorren eguenean, kultura etxean

Bergarako giroa suspertzeko ahaleginetan ari den herritar talde batek dei egiten du eguenean, azaroaren 11n, kultura etxean egingo den bileran parte hartzeko.

Dagoeneko hainbat bilera egin dituzte eta gaiarekin interesatutako guztiek har dezakete parte egueneko bileran. Bilera, esan bezala, eguenean izango da kultura etxean, 19:30ean.

MEDEURRENA / Politikari bergarra jaio zela 100 urte beteko dira abenduaren 1ean

Telesforo Monzonen inguruko jardunaldiak

EDU MENDIBIL

Telesforo Monzonen jaiotzaren 100. urteurrena betetzen dela eta, bergarar politikaroen gaineko mahai-inguruak eta hitzaldiak izango dira azaroaren 16tik aurrera. Monzonen bizitzaren askotariko alderdiak aztertuko dituzte ekitaldiotan.

Telesforo Monzon 1904ko abenduaren 1ean jaio zen. Jaiotzaren urteurrenean, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, Olaso Dorrea-Kide Elkarteak, *EGAN* literatura aldizkariak, Euskaltzaleen Biltzarrek, Daniel Landartek eta Bergararako Udalak antolatuta, haren ibilbidea gogoratzeko hainbat ekitaldi izango dira.

Donibane Lohizunen (hilaren 16an), Donostian (hilaren 17an eta 18an) eta Bergaran izango dira mahai-inguru eta hitzaldiak. Bergarara azaroaren 19an egingo da, Olaso Dorrean, 19:00etan. Jose Luis Elkoro arituko da moderatzaile lanetan eta Juan Ignacio de Uriak, Piarres Xarritonek, Joxe Mari Urkiak eta Victoriano Gallastegi Bergararako alkateak hartuko dute parte. Monzonen hainbat kantu tartekatuko dira mahai-inguruan.

1931ko udal hauteskundeetan EAJko zinegotzi aukeratu zutenetik hil arte politikan ibilbide



Telesforo Monzon, artxiboko irudi baten.

luzea egin zuen Monzonek, Euskal Herrian zein erbestean. Francoren diktadura amaitu eta gero, Hego Euskal Herrira itzuli eta

HBren sorreran hartu zuen parte, eta abertzaletasunaren sinboloetako bat bilakatu zen. Baionan hil zen, 1931eko martxoaren 9an.

Haragiaren gaineko jardunaldia eguaztenean

E.M.

EHNEK haragiaren gaineko jardunaldia antolatu d eguaztenean, hilak 10, Pertxa elkarteak, 19:00etan. Sarrera doanekoa izango da.


Eneko Karrera Gipuzkoako EHNEko presidentek haragi sektorearen gainean jardungo du lehenbizi. Baserritarren ikuspuntutik egoera zein den azalduko du Carrerak. Jarraian, Koldo Navascues EKAKo presidentek kontsumitzaileen ikuspuntua jorratuko du. Era berean, Jon Leturia albaitaria eta Giokelako Kalitate Kontrolaren arduradunak *Ukultutik hiltegiara eta harategitik sukaldara* izenburuko hitzaldia egingo du. Ondoren, gas-

tronomiako gaietan aditua den Edorta Agirre kazetariak berba egingo du; hain zuzen ere, kalitatezko haragiaren ezaugarri organoleptikoen gainean hitz egingo du. Bestiak beste, haragiaren zaporea, kolorea edota usain gozua nola bereiztu azalduko du Agirrek.

KALITATEA-BEREIZTU

Hitzaldien ondoren, haragi dastatzea izango da Koldo Lasa sukaldari bergararraren eskutik.

Larraitz Sasieta EHNEko kideak zera esan digu: "Askotan aipatzen dugu kalitatea. Kontsumitzaileek ere kalitate hori bereizten jakin dezaten antolatu dugu ekitaldia. Jendearen erantzuna ona bada, horrelako ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa dugu".



ASTEHEHENKO GOIENKARIA

Haragiaren zaporea, kolorea edota usain gozua nola bereiztu azalduko dute Pertxan.

LABUR

Taloak egiten ikasteko aukera azaroaren 19an Bergaran, Jardunen eskutik

Jardunek taloak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du. Arrasateko Ekin Emakumeen Elkarteak kideek emango dute ikastaroa, azaroaren 19an, Arrizuriaga jauregian, 17:00etatik 20:00etara. Jarduneko bazkideek sei euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek zortzi.

Izenematea Jardunek Errotalde jauregian duen bulegoan egin daiteke. Argibideak 943 76 08 19 zenbakian.

Ikasle Abertzaleak taldeak Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatuko du Bergaran

Ikasle Abertzaleak taldeak deituta, Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatuko da Bergaran datorren azaroaren 17an. Guk hemen orain Bergaran historia idatziko dugu lelopean manifestazioa izango da, ordua oraindik zehazteke dagoen arren.

Bestalde, azaroaren 20an Villabonan ospatuko den Ikasleen Egunera joateko autobusak antolatu dituzte. Izenematea Arrano tabernan egin daiteke.

Euskal Herriko gatazka konpontzeko ekarpena aurkeztuko du Batasunak Donostian

Batasunak Euskal Herriko gatazka konpontzeko ekarpena aurkeztuko du Donostiako Anoetako belodromoan, azaroaren 14an. Ekitaldira joateko autobusak antolatu dituzte eta izenematea ohiko tokietan egin daiteke.

Proposamena ahalik eta jende gehienari helarazteko asmoz, abendua bitartean 20.000 bat pertsonari zuzenean emango diote egitasmoaren berri Batasuneko kideek.



Ipintza institutuko ikasleek Zuhatzara irteera egin zuten

Ipintza institutuko DBHko lehen mailako ikasleek hiru eguneko irteera egin zuten Zuhatzara, Arabara. Hain zuzen ere, 13 urteko 70 ikaslek hartu zuten parte Zuhatzako egonaldian. Argazkian ikus daitekeenez, inguruko parajeetan ur ekintzekin primeran pasatzeko aukera izan zuten. Arranean, windsurfean eta beste kirol jarduera batzuetan hartu zuten parte. Hauek bai olinpikoak!

ELKARRIZKETA

JOSE LUIS FEO/ARGAZKILARIA

“Argazkia bera baino, efektu optikoa erakusten da 3D-ko argazkiekin”

EDU MENDIBIL

Jose Luis Feo Pol-Pol Argazki Taldeko kideak 3D-ko argazkilaritza lantzen dihardu azken urteotan. Euskal Herrian ez da argazkilaritza mota hori askorik landu, eta ibilbide horretan aitzindarietako bat dugu Jose Luis.

Noiz hasi zinen 3D-ko argazkiak egiten?

Orain dela zortzi bat urte. Gertatzen da oso gutxi garatuta dagoela eta zaila dela aurrera egitea, ia-ia bakarrik egin beharrekoko ibilbidea da. Urte hauetan hainbat momentutan utzi egin nuen. Madrilen izandako argazkilaritza estereoskopikoaren gaineko kongresu baten izan nintzen 2002an eta azken bi urteotan lan dezente egin dut.

Eta zer eskaintzen du 3D-ko argazkilaritzak ohiko argazkilaritzaren aurrean?

Nolabait esateko, errealagoa da. Argazkiak erakustea baino gehiago, 3D-ko argazkien efektu optikoa erakustea bilatzen dut. Ohiko argazkiak planoak dira; 3D-ko argazkilaritzan, berriz, argazkian bertan egongo bazina moduan ikusten dituzu han azaltzen diren paisaiak eta pertsonak.

Eta zelan lortzen da efektu hori?

Begiekin gertatzen den antzera, 3D-ko argazkilaritzan bi argazki behar ditugu aurrean dugun guztia harrapatzeko, ezkerreko partea eta eskumakoa. Ondoren, filtro berezi batzuen bitartez begi bakoitzarekin argazki bana ikustea lortzen da, efektu hori lortuz.

3D-ko argazkilaritza lantzen oso jende gutxi dabilela aipatu duzu lehen.

Madrilen eta Bartzelonan tal-



Jose Luis Feo berak sortutako kamara bikoitzarekin.

de bana daude eta guztira, Espainiako Estatuan 100 bat lagun izango garea kalkulatu dut. Castellon bizi den Debako erretiratu batek ere egiten ditu horrelako argazkiak eta harekin harreman estuagoa daukat.

Sortzaile ere aritu zara ibilbide horretan.

Han eta hemen galdetuta, aurrera egin dut, baina ez da erraza izan. Esaterako, ez dago ekipu estandarrik, dena norberak egin behar du. Bi kamerak aldi berean argazkia ateratzeko metodoa landu nuen. Argazkiak erakusteko ere pantaila berezia

“Ez da erraza izan aurrera egitea, besteak beste, 3D-ko ekipu estandarrik ez dagoelako”

behar da, aluminiozko partikulak dituena. Efektu bikoitza lortzen da: leiho efektuari esker, pantaila ez da ikusten, leihotik begira egongo bazina bezala ikus-

ten dituzu argazkiak, eta bestalde, erliebe efektuarekin badirudi irudiko hainbat objektu pantailatik aterako direla, eskuekin har ditzakezula. Hala ere, argazkiak erakustea ez da hain erraza, pantailaz gain, ikusleendako polarizatutako betaurreko bereziak behar direlako.

Zure lana erakutsi duzu?

Maiatzean Eibarren argazkilaritza kongresu baten nire lana erakustea proposatu zidaten, eta pozgarria izan zen jende adituaren animuak jasotzea. Han entzundakoarekin pozik itzuli nintzen.

KULTURAPILULAK

Dixie 900 talde bergararra gaur Danbaka lehiaketan

Gaur, egubakoitza, Danbaka musika lehiaketaren bigarren saioa izango da Elgetako Espaloia aretoan 22:30ean. Bertan besteak beste Bergarako Dixie 900 taldeak jardungo du. Pop-rock musika egiten dute gaztelaniaz eta 80ko hainbat talderen eragina igartzen zaie.

Rock-and-roll kontzertua gaur gaztetxean

Aukera polita izango dute gaur gauean rock-and-roll zaleek. Izan ere, 22:30etik aurrera kontzertua izango da gaztetxean. Kataluniako The rippers taldeak *Invertebrat* hirugarren lana aurkeztuko du. Bergara eta Lazkaoko Brigada Criminales bigarrena.

Oihulari Klownen 'La modelo' lana gaur Zabalotegin

Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek *La modelo* antzezlanak jokatu du gaur, egubakoitza, 22:30ean Zabalotegi aretoan. Telebista eta prentsako publizitateaz jardungo du umore giroan eta publikoko jendea egingo du bere laneko partaide.

Andra Mari abesbatza bihar San Pedro parrokian

Oreretako Andra Mari abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, San Pedro elizan. Emanaldia 20:00etan izango da eta guztira hamar kanta abestuko dituzte. Pianoan Imanol Elizasuk jardungo du eta zuzendari lanean Jose Manuel Tifek.

Gabero abesbatzak emanaldi bikaina egin zuen Holandan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gabero abesbatzako kantariak Holandako Veldhoven hirian izan ziren urriaren amaieran bertako gazteen abesbatza lehiaketan parte hartzen.

Lehiaketa horren zazpigarren aldia izan da aurtengoa, eta Euskal Herriatik bertara joandako lehena izan da David Azurtzak zuzentzen duen Gabero gazteen abesbatza.

Europako 15 talde izan dira guztira Veldhoven hirian: Errumania, Finlandia, Danimarka, Katalunia eta beste toki batzuetatik joandakoak.

EMAITZA ONA

Gaberokoe hiru kantarekin egin zuten erakustaldia, eta bidaiaren ostean, bergararrak oso pozik bueltatu dira lortutako emaitzarekin. Izan ere, eskratu zitzaizketen 10 puntuetatik 8'7

jaso zituzten. Puntuazio hori lehen sariaren parekoa dela esan digute Gaberokoe.

Lehiaketa horretan, ordea, ez da diru saririk egoten, abesbatzei euren kantatzeko moduaren balorazioa baino ez diete egiten.

Abesbatzakoak pozik itzuli dira eta prest daude horrelako beste jaialdiren batean parte hartzeko. Emaitza horiekin gainera, ate gehiago irekiko dizkietela uste dute.



Holandako Veldhoven hirian hartu dute parte gazteen abesbatzen jaialdian.

ESKUBALOIA

Gazte mailako neskek Ereintza hartuko dute, Labegaraietan

Kadete mailako mutilek eta bigarren senior mailako taldeak domekan jokatuko dute

EDU MENDIBIL

Hiru partidu izango dira aste bukaeran Labegaraietako kiroldegian. Bergara KEko eskubaloitza sailatik kadete mailako nesken taldea hasi da indartsuen liga. Zapatuan Zumaian irabazi ondoren, neskek Ereintzaren bisita izango dute bihar.

Ligako lehenbiziko partiduan Zarautzen aurka berdindu ondoren, Ibai Otxoak eta Ander Alvarezek zuzentzen duten taldeak azken bi partiduak irabazi ditu. Joan den zapatuan Pulporen aurka garaile izan ziren bergararrak, 12-16, Zumaian. Bergarako taldearen partetik Ainhoa Zabaleta eta Uxue Agirre izan ziren golegile nagusiak; bosna gol lortu zituzten.

ZORTZI TALDE LEHIAN

Iazko denboraldian ligako bigarren postua eskuratu zuen Bergarak. Aurten emaitza errepikatzea eta ahal bada txapeldun izatea da mahoneroen asmoa. Ibai Otxoak esan digunez, iazko taldea mantentzea abantaila da, jokalariek ondo ezagutzen dutelako elkar. Bihar, zapatua, Ereintzaren bisita izango dute, Labegaraietan, 16:30ean.

Aurtengo denboraldian zortzi talde ari dira lehian.

DOMEKAN, BI PARTIDU

Domekan, berriz, bi partidu izango dira Labegaraietako kirolde-



Kadete mailako neskek gogor hasi dute liga.

ESKUBALOIA SAILA

Senior mailako bi taldeek orain arte jokatutako partidu guztiak galdu dituzte

gian: batetik, kadete mailako mutilek Aloña Mendiren aurka jokatuko dute, 10:45ean. Xabier Lijók entrenatzen duen taldeak partidu bat irabazi eta beste bat galdu du orain arte. Zapatuan Usurbilen galdu zuten bergararrak, 32-23.

Domeka eguerdian bigarren senior mailako taldearen txanda izango da. Senior mailako bi taldeen martxa txarra da orain arte. Jokatutako partidu guztiak galdu dituzte orain arte Lander Juaristiren zein Josetxo Muniategiren taldeek.

Josetxo Muniategiren taldeak Gipuzkoako ligan dihardu. Domeka eguerdian Eibarko Haritza taldea izango du bisitari, 12:15ean hasita.

Lander Juaristiren taldea Euskadiko ligan ari da aurten eta azken-jardunaldian Basaurin galdu zuten mahoneroek, 31-24ko emaitzarekin. Zapatuan Leioan jokatuko dute.

Preferente mailako taldeak beharrezkoa du irabaztea bihar

E.M.

Preferente mailako futbol taldeak Hondarribia bisitari izango du bihar, zapatua, Agerrosin, 15:45ean. Bederatzi jardunaldi jokatuta dagoeneko, eta bergararrak ez dute oraindik partidurik irabazi.

Igor Gordobilek eta Andoni Azkar-gortak zuzendutako taldea sailkapeneko azken tokian dago, lau punturekin; zapatuan 1-0 galdu zuten UPV-EHU liderraren aurka, eta kezagarria da etxekoan igoera. Gauzak horrela, beharrezkoa dute bihar partidua irabaztea. Hondarribia sailkapeneko 9. tokian dago, 13 punturekin. Azken jardunaldian etxean berdindu zuten Oiartzunekin, bana.

BESTE HIRU PARTIDU

Aste bukaeran beste hiru futbol partidu jokatuko dira: bigarren



Infantil mailako taldeak Ilixta bisitari izango du domeka goizean.

ARTXIBOA

kadete mailako taldeak Urkiren aurka jokatuko du zapatuan Ipintzan, 12:00etan, eta arratsaldean, berriz, nesken futbol-8ko taldeak Urki izango du bisitari. Par-

tidua 17:45ean hasiko da. Domekan partidu bakarra izango da Ipintzako zelaian: infantil mailako taldeak Ilixtaren aurka jokatuko du, 11:00etan.

Gabon sariko eta Gipuzkoako Txapelketako pilota partiduak


E.M.

Pilota partiduak izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasita. Lehenbizi Gabon sariko gaztetxoan mailako bi partidu jokatuko dira eta jarraian, Gipuzkoako Txapelketaren barruan, gazte eta senior mailako partiduak izango dira, 19:30ak aldera.

Gazte mailan, Eneko Mugu-ruzak eta Jon Larrañagak Añorgako bikotearen aurka jokatuko dute eta jarraian Ander Mugu-

ruzak eta Igor Gutierrezek Amezketako ordezkarien aurka neur-tuko dituzte indarrak.

Gipuzkoako Txapelketako finalak abenduan jokatuko dira. Bergara KEko ordezkariak dago-kionez, Mugu-ruzak eta Gutierrezek oraindik badute finaler-dietarako sailkatzeko aukera, baina beren jokoa hobetu behar-ko dute, azkenaldian ez baita fin aritu bikote bergararra. Senior mailan ere Joseba Herranek txapelketa txukuna egiten dihardu banaka.



Gipuzkoako Txapelketako bi partidu jokatuko dira gaur.

ARTXIBOA

SASKIBALOIA

Bergara KEko kadete mailako taldeek partidua izango dute bihar, zapatua

Bergara KEko kadete mailako mutilen taldeak Loiola A taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 12:00etan hasita.

Kadete mailako neskek, berriz, La Salle taldearen bisita izango dute. Partidua Mariaren Lagundiko kantxan jokatuko da, 16:00etan.

MENDIA

Pol-Poleko eta Gorla Alpinoko beteranoen irteera Lizarragara eta Urdiainera

Pol-Pol Mendizale Taldeko eta Gorla Alpinoko beteanoek azaroaren 21ean Lizarragara eta Urdiainera joateko irteera antolatu dute. Egun guztirako irteera izango da eta herriko mendizale guztiei parte hartzeko gonbidapena luzatzen zaie.

Irteera 08:00etan egingo dute, autobus geltokitik. Txartelak salgai daude Pol-Polen, ohiko ordutegian. Bazkariko txartelak 40 euro balio dute.

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Canalejas-Egurre. Fac
10:30: Fac-PDS. Canalejas

ZAPATUAN, KANPOAN

16:30: Pirulotarrak-Niu Tim. Fit Autom.
17:30: Mongatxurrak-Fit Autom. Niu Tim

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: SDTNT-Komando Piperrak. KMP
17:00: KMP-Kalaveras. Pagomendi
18:00: Pagomendi-De Resaka. A Ze Flaxa
19:00: A Ze Flaxa-Irubide. Cosa Nostra
20:00: Bayer-Cosa Nostra. Irubide



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK
EGUREN
Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK
JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA
AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50
TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK
RAFAEL ARANBURU
Irizar 5. 943 76 10 81
MILAGROS LARRAÑAGA
Simon Arrieta 1. 943 76 16 28
BERNARDINO MAIZTEGI
Irizar 5. 943 76 10 81
JUAN ANTONIO SIERRA
Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK
JESUS LASKURAIN PEREZ
Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK
JON MUNIATEGIANDIKOETXEA
Barrenkalea 22. 687 73 75 67



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua 40. zenbakia

IEPA LAGUNOK!

Gogoratzen dozue zein egun dan gaur? Bai, asmau dozue! Lehiaketa eguna da! Zelako pozik egoten naizen egun berezi hauetan! Animau zaittie eta parte hartu, erregalu zoragarri baten zozketan parte hartuko dozue eta! Gogoratu erantzun orrixak martitzen goizerako zuen ikastetxeko idazkaritzan entregau bihar dittuzuela.



URREZKO ARAUAK

- Ezetz jakin zenbat anai-arreba dauzkaten!
- Nik etxeko lanak egin bihar dittut eta.
- A ke ez dakizue zenbat anai-arreba dauzkaten!
- Ya ke nik etxeko lanak egin bihar dittuten.



LOTU BIKOTIAK

- A.** Baietz arbola horretako sagarra hartu.
- B.** Joan zaittez zu bakarrik esko lara, nik etxeko lanak egin bihar dittut eta.
- D.** Igerilekura etorri naizenez, igerixan egittekko aprobe txauko dot.

- E.** Ezetz jakin zenbat anai-arreba dauzkaten!
- F.** Zer dala eta daukazu bi erloju eskumaturrian?
- G.** Ezetz asmau zer daukaten zaku honen barruan?



TXISTIA

- Zergaittik zaude horrenbeste denbora geldi?
- Nire erlojuaren zain nagoelako.
- Erlojuaren zain?
- Bai, atzeratu egin zait eta.



JOLASA 'Ezetz jakin'

Parte hartuko dabenean danak denbora tarte bat hartuko dabe, galdera batzuk gertatzeko. Ondoren, jokalaria bat bere galderak egiten hasiko da (Ezetz jakin....?). Galdera horren erantzuna dakixen jokalarixak, "baietz!" esango dau. Erantzuna zuzena bada, berak botako dau hurrengo galderia. Galdera bakoitzak 5 puntuko balixua izango dau. Galdera danak egindakuan amaituko da jolasa, eta puntu gehixen daukan jokalarixak irabaziko dau.



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze elizaren dorrepean daude estilo errenazentistako irudi hauek?

BERGARAROSPETSUAK

Juana Asbaje (eta 2)

KOLDO PEREIRA


Gero, 1668ko otsailaren 23an, San Jeronimoren komentuan sartu zen behin betiko. Monasterioko bake eta sosegua lagun zituela ekin zion literaturari. Menendez Pelayoren arabera, Juanak maitasun profanoari buruz idatzitako bertsoak emakume batek inoiz idatzitako bertsoarik ezti eta gozoenetakoak dira.

Prosan idatzitako testuei dagokionez, *Crisis sobre un sermón* eta *Respuesta a sor Filotea* dira ezagunenak. Azken horretan, emakumeek kultura eta irakaskuntzarako eskubidea dutela aldarrikatu zuen. Hori dela eta, munduko mugimendu feministaren aitzindaritzat jotzen dute, beste zenbaitekin batera.

Sor Juanak ez zituen jaioterria eta euskara ahaztu: *Obras poéticas* lanean, jasotako eskutitz batean arbasoak euskaldunak dituela, bera ere euskalduna dela eta sorteria bihotzean daramala diosku.

1695ean Mexikon jasan zuten izurritean, sor Juanak bere ahizpa mojak zaintzen eman zituen egunak, bera ere, neke handi haien ondorioz zeharo nekatuta, gaixotu egin zen arte. 1695eko apirilaren 17an hil zen.

Mugimendu feministaren aitzindaritzat jotzen dute Sor Juana, beste zenbaitekin batera



ARTIBOIA

Argazkian Mexiko hiriko irudi bat.

GALDEDEBALDE

1.

Zein urtetan jaio zen Telesforo Monzon politikari bergararra?

- A/ 1904an.
- B/ 1907an.
- C/ 1912an.

2.

Zein da Gabero gazteen abesbatzako zuzendaria?

- A/ David Azurtza.
- B/ Manu Larrañaga.
- C/ Josean Perez.

3.

Zein urtetan sortu zen Lokatza Txirrindulari Elkarteak?

- A/ 1967an.
- B/ 1972an.
- C/ 1976an.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

BERNARDO NUÑEZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Bernardo!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: 1855an / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Nuestra Señora de Ujue

Ardo beltza edo gorria

6x6,60€

6 x 1.098 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



MUJIKA FERRETERIA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA


GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA
Lokatzako gazte taldea, 1992

Lokatzako Ziklismo Eskolak joan den urriaren 16an agurtu zuen denboraldia. Altzasun elkartu ziren Lokatzako lagunak, lagunartean afaldu eta amaitutako denboraldia gainbegiratzeko.

Egunotan neguko prestaketari ekingo diote eta udaberri partean berriro ere errepidean izango ditugu herriko txirrindulariak. Gazte, kadete eta infantil mailako taldeak osatuko dituzte, eta txirrindularitzan aritzeko gogoz daudenek eguen arratsaldeetan Lokatzak San Martin plazan duen lokalera jotzea besterik ez dute.


1976an Lokatza sortu zenetik, txirrindulari asko pasa dira taldetik. Albo-ko argazkikoek gazte mailako taldea osatzen zuten 1992an. Argazkia taldea aurkeztu zeneko egunean aterata dago, Antzuolan. Atzealdean Olanan etxea ikusten dela, hauek dira argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Aurrean: Francisco Calderon, Xabier Garitano eta Alex Muela.

Atzerago: Juantxo Caballero, Josu Aizpiri, Agustin Heis eta Josu Otaegi.

Lokatzan jardun ondoren, argazkiko hiru amateur mailan lehiatu ziren: Josu Aizpirik Cafes Baque taldearekin korritu zuen, Juantxo Caballero Lekeitia aldean aritu zen eta Josu Otaegi, berriz, Irungo Puertas Mavisa taldean.

Argazkia: Berrigara artxiboa.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g Bergara
943 76 07 92

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

CAMACHO
Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
943 76 13 35

AGIRREBEÑA
JATETXEA

- Kintadak
- Eguneko menuak
- Asteburuko menu bereziak

Igandetan itxita

Ibarra 2, Labegaraia. Tel.: 943 76 21 45.

OGIZUN
koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 5a / 221. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Hamar bikotek ekingo diote pilota txapelketari bihar, zapatua, goizean

AINTZANE IRIZAR


Bihar, zapatua, hasiko da Olalde elkarteak antolatutako Herri Mailako Eskuz Binakako Pilota Txapelketa. Olalde norgehiagoka hori antolatzen duen zortzigarren urtea da aurtengoa. Bihar hasita, zapatu goizero jokatuko dituzte partiduak.

Bihar, zapatua, 09:30ean ekingo diote txapelketako lehendabiziko partidua jokatzeari. Guztira, lau partidu jokatuko dituzte; 10:00etan, 10:30ean eta 11:00etan izango dira gainerako partiduak, Udal Pilotalekuan.

Bihartik aurrera, zapatu goizero lau partidu jokatuko dituzte, abenduaren 11ra arte. Egun horretan, finalerdietako partiduak jokatuko dituzte. Finala, berriz, hilaren 18an izango da. Aipatzekoa da, bestalde, partiduak 18 tantora jokatuko dituztela.

HAMAR BIKOTE BI TALDETAN

Aurten, aurreko urtetan ez bezala, maila bakarrean jokatuko dute txapelketan izena eman duten hamar bikoteek. Baina, parte hartzaileak bi taldetan banatu dituzte. Hona hemen txapelketan jardungo duten hamar bikoteak; lehenengo taldean, honako hauek: Mikel Bargiela eta Jon Pagaldai; Aranguren eta Luis Larrea; Juan Simon Aristi eta Juan Manuel Aranburu; Agirrezabal eta Sara-legi eta Joseba Lezeta eta Juanjo Aranburu. Beste taldean, berriz,



Zapatu goizero lau partidu jokatuko dituzte, Udal Pilotalekuan.

ARTXIBOA

Bihar hasi eta abenduaren 11ra arte, zapaturu, lau partidu izango ditugu

honako bikote hauek ditugu: Mikel Urtzelai eta Jon Gurutz Biteri; Julen Iparragirre eta Mikel Larrañaga; Migel Mari Jauregi eta Mikel Muguruza; Andoni

Hamar bikotek eman dute izena, eta guztiek jokatuko dute maila berdinean

Balardi eta Bideluze; Aaron Almena eta Eneko Zabaleta.

Talde bakoitzeko lehendabiziko bi bikoteak sailkatuko dira finalerdietarako. Esan bezala,

Abenduaren 11n finalerdiak eta abenduaren 18an, berriz, finala jokatuko dute

abenduaren 11n jokatuko dituzte finalerdiak; handik bi bikote sailkatuko dira finalerako; abenduaren 18an, hain justu, jokatuko da finala.

LABUR

Hankapalo ikastaroa Gaztegunean

Hankapaloetan ibiltzen ikasteko ikastaroa antolatu dute oraingo astebururako Gazteguneko gaztetxoek eta arduradunek. Bihar, zapatua, izango da hori, arratsaldean. Gaztegunearen lokalean bertan, Errekalden, eskainiko du ikastaro hori, horretan jarduten duen talde batek.

Erretiratuek salgai jarriko dute Gabonetako loteria

Datorren martitzenean, hilak 9, Gabonetako loteria salgai jarriko dute erretiratuen elkarteko kideek. 18:00etatik 19:00etara egongo dira loteria saltzen egoitzan bertan, hiru euroren truke. Egun horretan denak saltzen ez badituzte, hurrengo egunetan ere saltzen jarraituko dute.

Osintxu-Antzuola ibilaldia antolatu du Arrolak

Hilaren 14an izango da Osintxu-Antzuola ibilaldia. Bidean, Gorlan, hain zuzen ere, babarrunak bazkalduko dituzte. Martitzenean, hilak 9, eman beharko duzue irteera horretarako izena. Nagusiek 7 euro eta gaztetxoek 3 ordaindu beharko dute.

Juan Cruz
ARGAZKIAK

Urriaren 15ean zozketatutako Olympus 350 kamera digitala Julian Iparragirrek irabazi du.

Zorionak Julian!



Herriko plaza 4. Tel.: 943 78 70 66. ANTZUOLA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

TXOMIN ALBERDI/ANTZUOLAKO GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

“Uste genuen baino jende gehiago dabil gaztetxean”

Hilabete baino gehiago pasatu da gaztetxea zabaldu zutenetik. Orduetik gauzak zela doazen jakin nahi izan dugu. Horretarako, Txomin Alberdi gazte asanbladako kidearekin berba egin dugu.

Hilabete eta erdi inguru pasatu da gaztetxea zabaldu zutenetik. Ze balorazio egiten duzue gazte asanbladan?

Orokorrean, oso balorazio positiboa egiten dugu. Alde batek, lokala zabaldu zenetik, gazte asanbladan geroago eta jende gehiagok dihardu lanean; bestetik, gaztetxean bertan ere guk uste genuena baino jende gehiago dabil, egunero eta antolatu ditugun ekintzak ere oso arrakastatsua izan dira. Egia da arazotxo batzuk izan genituela eta hiru egunez itxita egon zela, lokal barruko hainbat gauza apurtu

zituztelako batzuek; baina, arazo hori dagoeneko konpondu genuen eta pozik gaude.

Zela funtzionatzen du gaztetxeak?

Koadrila bakoitzak badauzka giltzak eta giltzak dituzten guztiek euren ardurak ere badituzte. Astero koadrila bati egokitzen zaio gaztetxea garbitzea; egunero garbitzen dugu lokala, eta bi egunetik behin, komunak garbitzen ditugu.

Bestalde, gaztetxearen arduradun nagusia gazte asanblada da; asanbladaren barruan taldeak egin ditugu, eta talde bakoitzak

“Orokorrean, hilabete eta erdi honetako balorazio oso positiboa egiten dugu”


bere ardurak ditu. Talde bat, adibidez, barne funtzionamenduaren arduraduna da; eurek erosten dute janaria, edariak eta abar; beste talde bat diru kontuetaz arduratzen da... Egubakoitzero elkartzen gara talde guztiak eta gauzak zela doazen ikusi.

Zenbat gaztek erabiltzen du gaztetxea?

Astean zehar egunero erabiltzen dugunok berrogei bat lagun izango gara, gutxi gorabehera. **Orain arte ze ekitaldi antolatu duzue?**

Inauguraziorako bertso afaria antolatu genuen; gero, ibarreko gazte asanbladen topaketa ere izan genuen eta orduan ere afaria egin genuen.

Aurrera begira, berriz, ekintza garrantzitsuena izango da hiesaren gainekoa; Txo Hiesakoekin harremanetan gaude, berbaldi bat antolatzeko. Bestalde, Gabonetako 24 orduak eta Independentzia eguna ere geuk antolatuko ditugu.



A.I.

KULTURA

Kultura ekitaldi mordoa izango dugu herrian azaroan zehar

ANTZANE IRIZAR

Udalak antolatutako kultura egitaraua ekitaldiz beteta dator kigu hasi berri dugun hilabete honetan. Antzerkia, hitzaldiak, musika, lehiaketak... denetik izango dugu azaroan zehar.

Azaroan ekitaldi sortarekin hasteko, Udalak antolatutako lehiaketako argazkien erakusketa izango dugu datorren asteburuan eta hurrengoan. Domekan, hilak 14, lehiaketa

horretako sariak banatuko dituzte, Olanan etxean.

Bestalde, zapatuan, hilak 13, Antzuolaren gaineko bideoa, *Barne-barnetik*, aurkeztuko dute. Herriko historia, ohiturak, ondarea eta urte oso baten herrian izandako gertakari adierazgarrienak jasotzen ditu bideo horrek. Egun bertan, hilak 13, gaztetxoendako tortilla lehiaketa izango dugu.

Azaroaren 18an, eguena, Nabarralde elkartearen aurkez-

pena izango dugu; Erlantz Urtasunek egingo du elkartearen gaineko berbaldia.

Hilaren 20an ipuin kontalaria izango dute umek, liburutegian; 22an, berriz, Santa Zezilia eguna dela eta, txistulariek kalejira egingo dute; ospakizunak, baina, hilaren 28an egingo dituzte.

Azaroaren 27an, zapatua, umeendako *Inaxitoren ametsak* saioa izango dugu. Egun bertan Anelkarrek elkartasun festa egingo du.



Senidetzea ofiziala da

Aurreko asteko egubakoitzetik, ofiziala da Aiherra eta Antzuolaren arteko senidetzea. Aiherrako Herriko Etxean sinatu zuten senidetze hori Jean Paul Basterretxe Aiherrako auzapezak eta Jose Angel Zabalo Antzuolako alkateak. Ekitaldiz betetako asteburua izan genuen antzuolarrok eta aihertarrek; giro ezin hobea izan genuen, gainera./A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 6

11:30: Antzuola-Bergara (Inf.F-8)

15:45: Antzuola-Eibartarrak (Erregion.)

PILOTA

Azaroak 6 (Herriko Txapelketa)

09:30: Herriko Pilota Txapelketako lau

partidu jokatuko dituzte.

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 2 Zestoa 1 (2. erreg.)

Antzuola 5 Zestoa 4 (Kadeteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.

Olalde-Zumarraga (eskuz nag.) . 10-22



Bizikleta aparkalekuak jarri dituzte

Gaztetxearen kanpoko aldean bizikleta aparkalekuak jarri ditu Udalak. 15 bat bizikleta aparkatzeko lekua dago hantxe. Gaztetxea zabaldu zutenetik, bizikleta asko pilatzen ziren inguru horretan. Hori ikusita, Udaleko arduradunek erabaki zuten aparkalekua jartzea./A.I.

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004ko azaroaren 5a / 205. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegí • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: 55475/95

Babes ofizialeko etxeen gaineko bilera Espaloian


IRATI AGIRREAZALDEGI

Torrealdean etxeak eraikitzen badihardute ere, oraindik ez dira hasi babes ofizialeko etxeak egiteko lanekin. Hala ere, hainbat herritarrek jaso nahi du etxe horien gaineko informazioa. Horretarako, Udalak deituta bilera izango da azaroan Espaloian.

Oraindik ez dute eman Torrealdean babes ofizialeko etxeak eraikitzeko data zehatzik, baina urte amaieran hastea espero dute. Orduetik aurrera, gutxi gorabehera urte eta erdiko epea izango dute lanak amaitzeko.

Herritarrek, ordea, etxe hauen gaineko informazioa jaso nahi dute, eta horretarako izena eman dute udaletxean. Orain dela hiru urte zabaldu zuten zerrendan izena emateko epea eta orduetik hona 100 lagun inguruk azaldu du babes ofizialeko etxeei buruzko interesa. Baina baliteke farte horretan aldaketak izatea.

Informazioa emateko bilera egingo dute herritarrekin azaroan Espaloian. Eguna oraindik zehazteke dago baina interesatuei gutun edo prentsa bidez jakinaraziko diete. Bertan, eskera orri bat banatuko diete inte-



Torrealdean oraindik ez dira hasi babes ofizialeko etxeak eraikitzen.

resatuei, eta zein agiri aurkeztu beharko dituzten azaldu. Horrela jakingo dute zenbat lagun izango diren etxebizitzentzozketan. Zozketan sartzeko ipini

dituzten baldintzetako batzuk hauek dira: gutxieneko soldata bat jasotzea eta diru kopuru bategorakoa ez izatea; eta etxebizitzaren baten jabe ez izatea.

ERREPIDEAK

Bihurguneak konpontzeko lanak atzeratu egingo dituzte

I.A.

Urrian ziren hastekoak Izarreko eta Uberako bihurguneak konpontzeko lanak. Baina urria amaituta oraindik ez diete lanei ekin.

Gipuzkoako Foru Aldunditik jakinarazi digutenez, lanean hasateko lurak euren eskuetan izan behar dituzte, eta horretarako Udalak egin behar ditu gestioak. Gestio horiek atzeratu direlako berandutu omen dira lanak.

Udalaren arabera azaroaren 22an sinatuko dituzte lurren desjabetze aktak. Beraz, orduetik aurrera edozein unetan hasi ahal izango dira beharginak konpontzeko lanekin.

KONPONKETAK

Diputatuen Kontseiluak onartu zuen bi bihurgune horiek konpontzeko proiektua, eta orain lanak lehenbailehen egitea da euren asmoa.

Bi kilometroko errepide tartean daude bihurguneak, eta egingo dituzten konponketa nagusienak zabalera handitzea eta lurra bera egokitzea dira. Uberako bihurgunearen erradioa 15 m-tik 25 m-ra zabalduko dute; Izarrekoa, berriz, 20 m-ra.

Bestalde, lurra egokitu, eustormak eraiki, hormigoizko arekak egin eta seinaleztapen egokia ere ipiniko dituzte. Lanen aurrekontua milioi bat euro da.

MUSIKA



ASTELEHENEN GOBARRA

Tradizio doinuetan oinarrituta abesti berriak egiten dituzte Igelaren Bandakoek.

Igelaren Bandaren kontzertua domekan

I.A.

Bixente Martinezek, Txarli de Pablok eta Inigo Egiak osatutako Igelaren Banda musika taldeak kontzertua eskainiko du domeka honetan 20:00etan Espaloia aretoan.

Ohiturazko doinu eta erritmoetan oinarrituta, abesti berriak sortu eta garatzen ditu hirukote honek, jazzaren eta musika berrien bidetik.


Hala ere, euren emanaldietan inprobisazioa da nagusi eta abestiei taldearen nortasun berezia

ezartzen diete. Tradiziozko doinuak berriz ere harmonizatzen dituzte bide berriak arakatzuz.

Bixente Martinezek gitarra eta bouzoukia joko ditu; Txarli de Pablok kontrabaxua; eta Inigo Egiak perkusioa.

DANBAKA GAUR

Bestalde, gaur 22:30ean Danbaka musika lehiaketako bigarren saioa izango da Espaloian. Arrasate eta Aretxabaletako Denial, Bergarako Dixie 900 eta Arrasateko Enboskada eta Neure Baitan izango dira taula gainean.



Bi bihurguneen zabalera handitu egingo dute.

ELKARRIZKETA

MAITE MANDALUNIZ/ZINEKLUBEKO KIDEA

“Lehen kanpora joan behar genuen zinemara, orain herrian dugu aukera”

Abuztuan hasi ziren zinema emanaldiekin Espaloian. Hainbat hilabeteren ostean emanaldiok arrakasta izan dute. Zineklubeko kide Maite Mandalunizek azaldu dizkigu zinema saio horien nondik norakoak.

Noiz eta nolatan hasi zineten zine klubarekin?

Emanaldiak abuztuan hasi ziren. Espaloia bezalako toki edukita, eguazteno filmak proiektatzen hastea pentsatu zen. Urte askoan ez da egon zinemarik herrian eta aukera ezin hobea izan da berreskuratzeko. Emanaldiak hasi aurretik, filmen zerrenda egiten ari zirela, nire proposamenak egiteko aukera eduki nuen, eta horrela hasi nintzen taldean parte hartzen. Taldea zabalik dago gerturatu gura duen guztiarendako.

Nola aukeratzen dituzue filmak?

Azken urteotan zinemarako zaletasuna asko hazi da laguntzean, eta nork bere proposamenak egitez osatzen joan gara zerrenda. Asmoa da aurrerantzean ikusleak filmak aukeratzen parte hartzea. Orriak banatu dira proposamenak jasotzeko.

Nolako filmak ematen dituzue?

Zinemako karteldegitik kendu eta telebistan eman gabe dauden aukeratzen ditugu normalean. Era guztietakoak eskaintzen dira: fikzioa, dokumentalak, drama, komedia... Emanaldiak aste barruan direnez, komenigarria da oso luzeak ez izatea. 21:30ean hasi eta gehienetan bi ordu ingurukoak izaten dira.

Jende asko joaten da eguaztetenan Espaloira?

Bai, eguaztenero 40-45 lagun elkartzen gara. Gehienak herri-tarrak, eta adin guztietakoak. Hala ere, badira kanpotik etortzen direnak ere. Ogitartekoa jan, trago bat hartu eta kafea filma hasitakoan hartzen duenik bada. Eibar aldetik igotzen da jendea.



GAZTETXEA

AHTren aurkako hainbat ekintzak

I.A.

Elgetako gaztetxeak Abiadura Handiko Trenaren aurka hainbat ekintza antolatu ditu asteburu honetarako.

Gaur, barikua, Abiadura Handiko Trenaren gaineko bideo bat erakutsiko dute gaztetxean bertan eta ondoren, aditu batek hitzaldia egingo du.

Zapatuan, berriz, manifestazioa izango da Donostian AHT ez lelopean eta bertara joan nahi dutenendako autobusa egongo da. Elgetan, 16:00etan plazan hartu beharko dute.

Azkenik, Abiadura Handiko Trenaren aurkako ekintzekin amaitzeko, ibilaldia antolatu dute domekarako. 09:00etan plazan elkartu eta Angiozar ingurura joango dira nahi dutenek, tren pasatuko den inguruak ikustera.

Ibilaldia amaituta indarrak berritzeko jatordua egingo dute 14:00etan gaztetxean.

GAZTAINA ERRE EGUNA

Bestalde, datorren barikuan gaztaina erre eguna ospatuko dute. Gaztaina errearen banatuko dituzte 19:00etan eta gauean kontzertua izango da gaztetxean.



ARTXIBOA

Ibarrean hainbat mobilizazio egin dituzte Lastertasun Handiko Trenaren aurka.

BETERANOEN LAU T'ERDIKO PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUAK

AZAROAK 7, BARIKUA
21:30: Angel Ibarluzea/Txapel-Mikel Iarrea/Mikel Arkarazo

Gero, Koldo Goenaga/Roberto Basauri-Jabier Bolinaga/Iñaki Izagirre

Ondoren, J.M. Arantzeta/Migel Arantzeta-Iñaki Ugarteburu/Enrike Ruiz de Erentxun

AZAROAK 7, DOMEKIA
11:00: Eduardo Zubiaurre/J.M. Zubiaurre-Jabier Otxoa/Mikel Elkorro

Gero, Alex Arantzabal/Alberto Telleria-Asier Morales/Fernando Zenitagoia

Ondoren, Pello Larrea/Joseba-Juan Karlos Errasti/Jesus Belamendia

EMAITZAK

Iñaki Ugarteburu/Enrike Ruiz de Erentxun-Jabier Bolinaga/Iñaki Izagirre11-22

Pello Larrea/Joseba-Eduardo Zubiaurre/J.M. Zubiaurre .13-22

Alex Arantzabal/Alberto Telleria-Jabier Otxoa/Mikel Elkorro22-6

Asier Morales/Fernando Zenitagoia-J. Karlos Errasti/Jesus Belamendia .11-22

“Zinemako karteldegitik kendu eta telebistan eman gabe dauden filmak eskaintzen ditugu”

Elgetan badago zaletasunik?
Baietz esango nuke. Orain arte ez dugu aukerarik izan eta zinema gustuko zuenak inguruko herri eta hiriburuetara joan behar zuen. Orain, herrian bertan eta doan ikusteko aukera daukagu.

“Filma ikusteko beste modu bat eskaintzen dugu: kafea hartuz edo zigarroa errez”

Nola animatuko zenuke jendea emanaldietara joateko?
Giro polita sortzen da. Zinema ikusteko beste modu bat ere bada. Filma ikus dezakezu kafea hartuz, edo zigarroa errez. Aste erdian izatera, egunerokotasuna apurtzeko modua ere bada.

DANBAKA

DEBAGOIENENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

SMS MEZUAK

Gustukoen duzun talde, bakarleri edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Mezuak bidaltzeko jarri:

DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.



ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

OTORRINOLARINGOLOGOA

IGARTUA ALMANDOZ Julian Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.